

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKINAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza

Kontzeju honek, 2018ko abenduaren 3ko bilkuran, hasierako onespena eman ziolarik auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza onartzeko espedienteari, eta jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsita geratzen da. Ondorioz, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikulua ezartzen dutenaren ildotik, testua oso-osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

Auzolanak arautzen dituen zerga ordenantza

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honek, Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 44. artikuluan xedatzen duenari jarraituz, kontzejuko auzolanak arautzea eta zehaztea du helburu. Halakotzat ulertzen dira, norberak, kontzejuan bertan, derrigorrean eman behar dituen zerbitzuak.

Kontzejua da berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen toki erakundea, bere jurisdikzioa udalerrriarena baino lurralde barruti txikiagoan gauzatzen duena.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Auzotar familia: etxe batean, kontzejuaren lurretan, bizi den pertsona edo pertsona taldea, horietako batek behintzat kontzejuaren erroldan inskribatuta egon beharko duelarik, kontzejuan urtean zazpi hilabete baino gehiagoan bizitzeagatik.

2.2. Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan inskribatuta egon ala ez.

2.3. Auzolana: auzotarrek edo egoitzadunek kontzejuaren barrutian edo haren ondasun edo jabetzetan egin beharreko lana edo jarduera, kontzejuarena den edo erabilera esleituta daukan zerbitzu publikorako ondasun bat eraiki, konpondu edo mantentzeko.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.3.1. Ohiko auzolanak: erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen diren kontzejuaren ondasun eta zerbitzuak zaindu eta instalatzearen, urtean zehar egiten direnak.

Lan hauek egin daitezke auzolanetan:

- a) Herriko bide publikoak eta horien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.
- b) Saneamendu, hustubide, estolda, lorategi, iturri, putzu eta garbitokiak konpondu, hobetu eta garbitzea.
- c) Kontzejuaren ur instalazioak konpondu, zaindu eta mantentzea, urak jatorrian biltzen diren lekutik etxeetako hartuneetaraino, kontzejua titularra den guzti-guztian.
- d) Kontzejuaren jabetzakoak diren eraikinak eta gunee publikoak konpondu, garbitu eta mantentzea.

- e) Pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea kontzejuaren jurisdikzioko lurraldean.
- f) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.
- g) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.
- h) Kontzejuaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein jardun egitea.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendietan, uholdeetan, suteetan edo aurreikusi ezin daitezkeen bestelako ezbeharretan egin beharreko auzolanak.

2.3.3. Nolanahi ere, auzolanak urtean 15 egunetan egingo dira gehienez eta ezingo dira egin jarraikako 3 egunetan baino gehiagotan, norberak egin beharreko zerbitzuak baitira.

3. artikulua. Betebeharra dutenak

3.1. Auzolanak denoi dagozkigunez gero, nahitaezkoa da, gutxienez, kontzejuko familia bakoitzeko kide batek parte hartzea, bai eta egoitzadunak edo kontzejuan etxe bat elkarrekin daukaten egoitzadunetarikoa batek ere. Hala ere, badaude salbuespenak. Hona hemen horiek:

a) Familia, egoitzadun edo egoitzadun talde bateko kide guztiek 18 urtetik behera edo 55etik gora izatea.

Aurrekoa gorabehera, 55 urtetik gorakoak ere ager daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta gainerako kalteetatik babestuta egongo dira dagokion aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean kide guztiak gaixorik edo ezindurik dituen familia, aldeztatik auzolanetara buruari medikuaren ziurtagiria edo dena delako egiaztagiria erakutsita.

3.2. Ordenantza honetako 2.1 artikuluan zehaztutako auzotarrek betebeharra dute 2.3.1 artikulua idatz zatietan adierazten diren auzolanetan parte hartzeko.

Ordenantza honetako 2.2 artikuluan zehaztutako auzotarrek betebeharra dute ordenantza honetako 2.3.1 artikulua a), b), c), d), e) eta h) idatz zatietan adierazitako auzolanetan parte hartzeko.

3.3. Aurreko idatz zatian agertzen diren betebehardunetz gain, aprobetxamenduren bat (luberrak, egurra egitea, etab.) daukaten auzotarrak ere behartuta daude parte hartzera aprobetxamenduaren gai den ondasunarekin zuzenean edo zeharka lotutako auzolanetan.

4. artikulua. Deialdia

4.1. Errejidore lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta noiz hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2. Ohiko auzolanerako deia ohiko eran eta erakundearen iragarki ohoan oharra jarritz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko aurretiaz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeratik ez baitute baldintza hori bete behar.

4.3. Edonola ere, administrazio batzarrak auzolanak egiteko arrazoizko epeak ezarriko ditu, larrialdi egoerak, eguraldia eta gainerakoak aintzat hartuta, betebehardunek lanak ahalik eta eroso egin ahal izateko.

5. artikulua. Auzolanak nola egin

5.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak ekarriz egin beharreko lanerako aldeztatik auzolanetara zehaztu diren tresnak eta makinak.

5.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat eramango da, eta bertan jasoko dira aintzat hartu beharreko gorabeherak, 2. eranskineko ereduaren arabera.

5.3. Errejidore buruak antolatuko du auzolana, eta lana ahalik eta egokien egiteko moduan banatuko ditu pertsonak eta bitartekoak.

5.4. Auzolanerako unea aukeratzean, ahalegina egingo da kontzejuaren barrutian lan gehien izaten den sasoiarekin batera izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere kontuan hartu ahal izango da, hala auzotarrek nola egoitzadunek, denek izan dezaten joateko aukera.

5.5. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, deia betebehardunen kopuru jakin bati edo are banan-banan egin ahal izango da. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

5.6. Kontzejuak auzolanetan parte hartzen dutenak babesteko aseguru bat egingo du, zeinak auzolanetan gerta daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaliko baititu.

5.7. Auzolanak ez dakar inolaz ere kontzejuaren eta auzolanean parte hartzera behartuta daudenen arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzea

6.1. Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horretatik libre gera daitezke era haue-takoren batean: a) bere ordez lana egin dezakeen beste norbait bidaliz; b) zerbitzu pertsonaleko ordu bakoitzeko 20 euro ordainduz, aldez aurretik administrazio batzarreko lehendakariak likidazioa jakinarazita, behar bezala eta 3. eranskinean zehazten den ereduaren arabera; c) auzolanean parte hartu ez izana konpentsatuz, beste auzolan batean parte hartuta, hutsegitea arrazoitua baldin bada.

6.2. Aurreko idatz zati hori dela eta, administrazio batzarreko buruak auzolanetik libre geratze horiei dagozkien likidazioak egingo ditu urtero azaroan.

Likidazio horiek diru-bilketa prozedura arautzen duen indarreko araudiari jarraituz jasoko dira, eta betearazte prozeduraz ere eskatu ahal izango dira, Arabako Kontzejuen Foru Arauak xedatutakoari jarraituz.

6.3. Administrazio batzarreko buruari bidezko arrazoiak adierazi gabe deitutako auzolanera huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, artikulua honen 1. idatz zatia b) hizkia aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordainduko.

7. artikulua. Kalte-ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanetan parte hartzeko betebeharra dutenek diru konpentsazio bat jaso ahal izango dute ordain edo kalte ordain modura, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera.

Azken xedapena

Ordenantza hau, kontzeju honetako auzotarren batzarrak 2011ko apirilaren 8ko bilkuran onetsi zuena, ALHAOn oso-osorik argitaratu eta toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan xedatutako epea igarotakoan jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzen den arte.

Okina, 2019ko urtarrilaren 22a

Lehendakaria

MIKEL POLO PÉREZ DE ONRAITA

1. eranskina

Auzolanetarako.....¹deialdia

Eguna:²

Hasiera ordua:.....

Bukaera ordua:.....

Tokia: ³.....

Parte hartzaileek eraman beharreko tresnak:.....

Banan-banan deitutako pertsonak: ⁴.....

1 Ohikoa edo ezohikoa (dagokiona).

2 Eguna edo egunak (dagokionaren arabera)

3 Elkartzeko lekua, auzolanari ekiteko.

4 Soilik 5.5 artikuluaaren arabera hala dagokionean.

2. eranskina

Auzolana:¹

.....urtea.....hila.....eguna

BERTARATUAK	LANEAN EMANDAKO ORDUAK	ZENBAT LANORDU GERATZEN DIREN		EKARRITAKO LANABESA	ORDAINDUTAKO DIETA		LIBRE GERATZEA		ORDUAK ERREKUPERATZEA				
		ERREKUPERATZEKOAK	LIBRE GERATZEKOAK		EUROAK	DATA	EUROAK	DATA	ORDUA	EGUNA	ORDUA	EGUNA	

Auzolana:¹

.....urtea.....hila.....eguna

BERTARATU EZ DIRENAK	ZENBAT LANORDU GERATZEN DIREN		LIBRE GERATZEA		ERREKUPERATZEA			
	ERREKUPERATZEKOAK	LIBRE GERATZEKOAK	ORDUAK	DATA	ORDUA	EGUNA	ORDUA	EGUNA

1 Auzolanaren xedea.

3. eranskina

Jakinarazpen eredu, auzolanetik libre geratzearen likidazioarena

Izena ¹.....

Helbidea

Jaun/andre agurgarria:

Erakunde honetako auzolanen liburuan jasotzen diren datuen arabera, kontzeju honek(e) ko.....aren.....(e)(a) n ² AUZOLANA ³ egiteko deitutako auzolanetara auzolanera agertu ez den pertsonetako bat zara; ondorioz, kasuan kasuko ordenantza arautzailearen 6. artikuluan xedatutakoa betez,euro ⁴ ordaindu beharko duzu, auzolana egin ez izanagatik.

Zenbateko hori kontzeju honen diru kutxetan ordaindu beharko da hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Ez baduzu epe horretan ordaintzen (borondatezko epean, hain zuzen), betearazte aldia hasiko da, eta, orduan, dagozkion errekaruekin ordaindu beharko duzu, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28ko) 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hori jakinarazten dizut adieraziz ezen ebazpen honek agortu egiten duela administrazio bidea, eta, beraren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitekeela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera, edo, bestela, aukerako berraztertze errekurtsua administrazio batzarreko lehendakariari, hilabeteko epean, jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera; administrazio batzarreko presidentearen ebazpen espres edo presuntziozkoaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua ezesten duen ebazpenaren jakinarazpen egunaren hurrengotik aurrera, edo sei hilabeteko epean errekurtsu hori presuntzioz ezesten den egunaren hurrengotik aurrera.

Ohar garrantzitsua: jakinarazpen hau egin beharko da jaso dela egiaztatzeko moduko bideren batetik (postaz, gutun ziurtatu bidez eta jaso agiriarekin; eskuan emanda, igortzen den gutunaren fotokopiarekin, zeinetan jasota egon beharko baita interesdunaren sinadura eta jaso duen eguna; etxean ez badago, bertan dagoen beste edozeinek jaso dezake, bere nortasuna jasota uzten badu).

1 Idatzi interesdunaren identifikazio datuak.

2 Idatzi auzolanetik libre geratutako eguna edo egunak, hila eta urtea.

3 Adierazi zein lan edo jarduera egin den lan egitetik libre geratutako auzolanean.

4 Zehaztu auzolanen ordenantzaz ezarritako zenbatekoa.

Premiamendu probidentzia

.....(e) ko Kontzejuan dauden aurrekarien eta datuen arabera, honekin batera doan zerrendan(e) tik.....(e) rako probidentzia zenbakiarekin zehaztuta ageri diren zergadunek kontzeju honi zor dizkie zerrenda horretan ere ageri diren kopuruak, kontzeptuak eta erreferentziak, eta haiek borondatezko epean ordaintzeko epea bukatu da.

Horregatik, indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, premiamendu bidea hasi dela adierazten dut, eta zor hori eta Arabako zergen Foru Arau Orokorraren 28. artikulua arabera hari dagozkion erredarguak, hala badagokio, ordain ditzatela eskatzen diet. Hauexek dira errekarguak:

– Zor guztia ordaintzeke badago, ehuneko 10eko premiamendu errekargu murriztua; hura epe hauetan ordaintzen da:

– Probidentzia hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilaren 20ra arte.

– Probidentzia hilaren 16tik hilaren azken egunera bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 5era arte.

Ordaintzeko azken eguna ez bada balioduna, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

– Probidentzia jakinarazi ondoren, adierazitako epeetatik kanpo ordaintzen bada zorra, ehuneko 20eko premiamendu errekargu arrunta, betearazte aldia hasi zenetik zordundutako berandutze interesekin.

Halaber, ohartarazten zaie ezen, ordaindu beharrekoa ez bada ordaintzen epe horien barruan, ondasunak bahituko zaizkiela edo, hala badagokio, lehendik jarritako bermeak, foru arau horrek jasorikoarekin bat etorritz.

.....(Araba), 2019koren ...-(a) .

Fede emailea

Izpta.:..... jauna / andrea